

Filosofiari zor zaionaren defentsa irmoa

Ikasketa plan berrien mehatxuak ikusirik, filosofiaren garrantzia aldarrikatu dute hainbatek 'Filosofiaren defentsak' liburuan

Julen Aperribai Donostia

Nork bere diziplinatik, eta euren arteko adostasunak nahiz desadostasunak agerian uzteko beldurrik gabe, filosofiaren aldeko aldarriak elkartu ditu hamar lagun, *Filosofiaren defentsak* (Erein) liburuan. Iazko irailean aldarri berak elkartzituen egileak, eta, tertulia filosofiko moduan, hainbat hizketaldi egin zituzten Bilbon, Gasteizen eta Donostian, Agora filosofia elkarteak antolatuta. Filosofiaren Historia derri gorrezko ikasgaia zen batxilergo guztietan lehen, eta hautazko ikasgai bilakatu da batxilergo modalitate bakarrean orain. Ez diote irakasgaiari etorkizun opariorik iragartzen, LOMCE hezkuntza plana, eta plan horri Eusko Jaurlaritzak EAEn egin dion berregokitzapena (Heziberri 2020) direla medio. Arrazoi horrek elkartu zituen irailean, eta elkartu ditu orain ere, orduan defendatu zuten berbera paperera eramateko.

Filosofia «ikasgelatik kalera» atera nahi izan dutela azaldu zuen Inigo Martinezek, atzo, Donostiako Kaxilda liburu dendan eginiko aurkezpenean. Alboan zituen liburuari ekarpena egin dietenetakoa lau: Teresa Maldonado irakaslea, Pedro Miguel Etxenike fisikaria, Pako Aristi idazlea, Xabier Galardi filosofoa eta Agustín Arrieta Urtizberea unibertsitate irakaslea. Guztiek nabarmendu dute filosofiak errealitatea interpretatzeko eta horren gainean galderak egiteko duen gaitasuna. «Ikuspuntu kritikoa garatzeko» beharrezkoa da, Maldonadoren esanetan. Gizakia «bere baitatik atera, eta kontu publikoetan aritzea» garrantzitsua da beretzat. Filosofiaren eta politikaren arteko lotura egin du, eta biak garai berean, antzinako Grezian, jaio zirela adierazi.

Gai hori izan du heldulekuetako bat Pako Aristik, bere testua garatzeko orduan. Azpimarratu

du egungo praktika politikoan atzean filosofia dagoela. «Filosofia baino gauza politikoagorik ez dago». Horregatik, filosofia desberdinen arteko bereizketa egiteaz mintzatu da, «ezagutu baititugu inperialismoa, kolonialismoa, genozidioa eta abar babestu dituzten filosofiak ere».

Filosofia bestelako diziplina batzuen artean kokatu izan da eredu klasikoan, Arrieta Urtizberek dioenez. Diziplina orokor gisa hartuazateak, hala ere, aurkako argudioak ere sorrazi omen ditu; bat, nagusiki: «Jendeak uste du hain orokorra den diziplina batek ez duela balio sozialik, ez duela eraginik gizartearen». Kontraargudio gisa, Arrieta zehaztu du filosofiak balio sozialen gaineko gogoeta bultzatzen duela, eta, are, eragin sozial «ikaragarria» duten gertakariak pentsamendu filosofikotik eratorriak direla; Frantziako Iraultza, kasurako.

Feminismoan, gabezia

Ikuspuntu feminista filosofian txertatzeaz ere jardun dira hizlariak. Gabezia nagusia horixe du filosofiak, hain zuzen ere, Arrieta esanetan; «ez duela kontuan hartzen emakumezkoa». Galardik ere hala uste du. Bere garaian, ilustrazioak askatasuna lehenetsi zuen, berdintasunaren aldean, baina, orain, feminismoak beste kode batzuk filosofian txertatzeko aukera ematen duela dago.

Horren harira, filosofia modu zabalean ulertzeko beharraz aritu da Maldonado. «Filosofia bukatzu gabeko lana da», hark dioenez, eta «filosofia ikasgaiak eman behar dizkigu tresnak filosofia itxi horiek ere zalanztan jartzeko». Hor kokatu du feminismoa: «Nola da posible berdintasunaren defentsan aritu direnek albo batera utzi izana emakumezkoa? Horrelako gauzak ezagutu behar dira, mahai gainean jarri behar dira; eta hori guztia filosofia ikasi gabe ezin izango dugu egin».



Filosofiaren defentsak liburua osatzen duten testuen egileetako bost, atzo, liburuaren aurkezpenean. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

Deskontu Sarea



Eroski Bidaiak-en eskutik egonaldi bat irabazi nahi al duzu?

Erabili Deskontu Sareko **kupoi** bat, eman zure iritzia **Esperientziak** atalean, eta parte hartu zozketan. Parte hartzeko azken eguna, ekainaren 4a.

> Berria.eus/berrialaguna/deskontusarea

Animatu, eta kontaiguzu zure esperientzia!



BERRIAlagun izateagatik, Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan deskontuak daukazu zure eskura: dendak, museok, aisialdi guneak, landetxeak...

Sartu **Deskontu Sarean**, eta erabili gustokoen duzun kupoa.

berria
mugatu zure esperientzia